



Prentsa-oharra, 2011/02/08koa

ESKAINITZA IMMOBILIARIOARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2010eko 4. hiruhilekoa

2010eko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera, EAEko etxebizitza erabiliek eutsi egin diote metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioari, eta berrietan, aldiz, % 1,3 jaitsi da.

Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,2 hilabetekoa da.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2010eko laugarren hiruhilekoko eskaintza inmobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa ez da aldatu aurreko hiruhilekoarekiko, baina aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta % 3 igo da, eta 3.891 euro egin ditu.

Araban agentziek saltzeko eskaintako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 3,2 jaitsi da, azken hiruhilekoan, eta 2009ko azken hiruhilekoarekiko alderatuz gero, % 5,1. Gipuzkoan % 1,8 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta eutsi egin dio 2009ko laugarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, aldiz, % 1,2 igo da, 2010eko aurreko hiruhilekoarekiko, eta hortaz, azken 12 hilabeteotan, guztira, % 4,8 igo da.

Donostian erabilitako etxebizitzaren metroko koadroko prezioa % 0,3 igo da azken hiru hilabete hauetan. Aitzitik, Bilbon % 0,2 jaitsi da, eta Vitoria-Gasteizen % 3,4 epe berean. Azken hamabi hilabeteetako bilakaera kontuan izanik, Donostian eta Bilbon % 1,2 eta % 0,7 igo da eskaintza-prezioa. Vitoria-Gasteizen, ordea, hazkundera negatiboa izan da; % 5,2 jaitsi da.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezinen agentziek esaten dute saltzaileek % 14,9 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, azken hiru hilabeteetan 1,4 puntu jaitsi dela, baina % 3,5 puntu gehiago aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa, 3.877 euroren bueltan baitabil, % 1,3 jaitsi da hiruhilekoan, eta urtebeteko epean % 3,8ko jaitsiera metatua izan du.

Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioak % 0,2 egin du gora 2010eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 1,9ko hazkundera metatu du azken 12 hilabeteetan. Bizkaian, aitzitik, metro koadroaren prezioaren % 0,8 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta % 3,4ko jaitsiera metatua



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico


izan du azken urtebeteen. Gipuzkoan jaitsiera % 3,1era iritsi da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 7,7ra azken hamabi hilabeteetan.

Etxebizitza libre berriaren metro koadroaren prezioa % 1,8 jaitsi da Bilbon azken hiruhilekoan.

Donostian etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 1 jaitsi dira, eta Vitoria-Gasteizen, berriz, ia mantendu egin dira, % 0,1 baino ez dira igo. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 15 egin du behera Donostian. Aldiz, Bilbon eta Gasteizen gora egin du epe horretan, lehenengoan % 6,3 eta bigarrenean, % 2,1.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 11.200 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 3,4.

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2010. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza inmobiliarioari buruzko estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 318.100 eurokoa izan da, 2010eko laugarren hiruhilekoan, % 1,1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,4 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -330.300 eurokoa-, etxebizitza libre berria baino 12.200 euro gehiago, batez beste, igo egin da azken hiruhilekoan, % 1,6, eta horrekin % 6,5ko igoera metatu du, azken 12 hilabeteetan; hau da, 20.300 euroko hazkunde.



Araban etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioak azken hiruhilekoan % 0,2 jaitsi dira, eta erabilitakoarenak % 4,1. Erreferentzia gisa 2009ko laugarren hiruhilekoa hartzen badugu, etxebizitza libre berriaren prezioak igoera metatua % 0,2 izan du, eta erabilitakoak, % 7,6ko jaitsiera. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 294.000 eurokoa da, eta erabiliarena, 272.700 eurokoa.

Bizkaian etxebizitza librearen azken hiruhilekoko eskaintza-prezioa 313.300 eurokoa izan da, horrek esan nahi du % 0,4 jaitsi dela azken hiru hilabeteetan, eta % 2,9 azken urtebetean. Erabilitakoaren eskaintza-prezioak % 4,2 egin du gora hirugarren hiruhilekoarekiko, urtebetean % 10,7ko igoera; egungo batez besteko prezioa 325.600 euro ingurukoa da.

Gipuzkoan, etxebizitzaren batez besteko preziorik altuenak baititu, etxebizitza libre berriaren batez besteko prezioa 336.700 eurokoa da, eta 398.500 eurokoa bigarren eskukoarena; berriaren prezioak % 2,9 egin du behera azken hiru hilabeteetan, eta erabilitakoak berriz, eutsi dio. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 6,5 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena proportzio berean, % 6,5, baina igo.

Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza libre berriaren eskaintza-prezioa, batez beste, 48.900 euro igo da Bilbon eta 1.400 euro, Vitoria-Gasteizen. Aitzitik Donostian jaitsi egin da, batez beste, 33.900 euro.

Azken hamabi hilabeteetan Bilboko eta Vitoria-Gasteizko higiezin agentziek eta sustatzaileek % 12,5 eta % 0,4 igo dute etxebizitza libre berriaren bateko eta besteko prezioa. Donostian aldiz, % 7,3 jaitsi dute.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 0,6 jaitsi da Vitoria-Gasteizen, % 0,5, Bilbon, eta % 1,1 Donostian. Batez besteko prezioa 438.600 eurokoa da Bilbon, 429.800 eurokoa Donostian, eta, baxuena, 313.000 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.

Erabilitako etxebizitzaren salmenta-prezioa % 4,2 jaitsi da azken hiruhilekoan Vitoria-Gasteizen, eta % 1,7 eta 2,5 igo, hurrenez hurren, Donostian eta Bilbon. Azken hiriburu horretan 2009ko laugarren hiruhilekotik % 8,7ko igoera gertatu da --31.500 euro gehiago batez beste-- eta % 6,5ekoa --30.400 euro gehiago-- Donostian. Bestetik, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 7,5 jaitsi da, 22.400 euro, alegia.

Azken urtean % 24 jaitsi da alokairuko etxebizitzaren eskaintza higiezin agentzien eta erakundeen aldetik.

Alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren bolumena --libre eta sozialarena-- % 24 jaitsi da azken hamabi hilabeteetan, eta % 14,9, azken hiruhilekoan, hau da, eskaintza osoa hartuta, hamarretik batera ere ez da iristen: % 8,9.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitza libreen batez besteko errenta 942 eurokoa da, aurreko urteko azken hiruhilekoan baino % 7,6 gehiago, eta aurreko hiruhilekoan baino % 3,3 gehiago.

Etxebizitza babestuen -BOEen eta etxebizitza sozialen– alokairuko batez besteko errenta 236,4 euro da; aurreko hiruhilekoan baino % 18,4 gehiago eta hamabi hilabete lehenago baino % 7,5 gehiago.

Babestutako etxebizitzak -BOEk eta etxebizitza sozialek–, merkatuan saltzeko eskainitako hamar etxebizitzatatik bat baino gehiago dira, % 13,6; batez beste 110.200 euroko prezioan –1.474 euro metro koadro erabilgarriko–. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 0,3 egin du behera hirugarren hiruhilekotik laugarrenera, eta 2009ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,4 igo da.

Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 9,2 hilabetekoa da, duela urtebete baino hilabete erdi gehiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2010ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
M2 ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1,474		-4.1	-0.3	5.3	0.4
	Berri librea	3,877		-50.0	-1.3	-155.2	-3.8
	Erabilia	3,891		-1.1	0.0	112.1	3.0
Araba	Berri librea	3,532		5.4	0.2	65.4	1.9
	Erabilia	3,368		-109.7	-3.2	-181.8	-5.1
Bizkaia	Berri librea	3,899		-32.3	-0.8	-136.2	-3.4
	Erabilia	3,752		45.8	1.2	170.7	4.8
Gipuzkoa	Berri librea	4,034		-128.1	-3.1	-338.7	-7.7
	Erabilia	4,686		-86.3	-1.8	-0.9	0.0
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3,496		28.8	0.8	158.1	4.7
Berria librea	Gasteiz	3,780		4.0	0.1	76.2	2.1
	Bilbo	5,440		-101.4	-1.8	321.1	6.3
	Donostia	4,771		-47.3	-1.0	-840.7	-15.0
Erabilia	Gasteiz	3,411		-120.7	-3.4	-188.7	-5.2
	Bilbo	4,269		-7.1	-0.2	28.6	0.7
	Donostia	5,658		18.7	0.3	68.1	1.2
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	110.2		-1.6	-1.4	-5.1	-4.4
	Berria librea	318.1		-3.6	-1.1	-11.2	-3.4
	Erabilia	330.3		5.3	1.6	20.3	6.5
Araba	Berria librea	294.0		-0.6	-0.2	0.7	0.2
	Erabilia	272.7		-11.6	-4.1	-22.5	-7.6
Bizkaia	Berria librea	313.0		-1.3	-0.4	-9.2	-2.9
	Erabilia	325.6		13.3	4.2	31.4	10.7
Gipuzkoa	Berria librea	336.7		-10.2	-2.9	-23.3	-6.5
	Erabilia	398.5		0.0	0.0	24.2	6.5
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Gutzizkoa	28,921	100.0	695	2.5	1,361	4.9
	BOE berria/Etxeb. soziala	3,573	17.8	163	4.8	-1,438	-28.7
	Berria librea	4,596	19.4	-102	-2.2	-521	-10.2
	Erabilia	18,184	51.2	1,083	6.3	4,131	29.4
	Etxeb. Soziala/Librearen Alokairua	2,568	11.5	-450	-14.9	-812	-24.0
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	236.4		36.8	18.4	16.5	7.5
	Librea	942.0		30.0	3.3	66.7	7.6
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA		9.2		0.9	11.0	0.7	7.7
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentajeazko puntutan	Ald %	Aldea portzentajeazko puntutan	Ald %
EAE		14.9		-1.4	-8.5	3.5	30.4
Araba		7.7		-2.9	-27.5	0.3	3.7
Bizkaia		11.6		-0.6	-5.3	-0.3	-2.7
Gipuzkoa		21.4		-2.0	-8.5	9.6	81.2

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzailerak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m2 arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

2010eko laugarren hiruhilekoko datuak 137 higiezin-agentzik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 156 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak, eskaintako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrek ateratzen dira, ausazko aldagetak gutxiagotzeko.

Informazio gehiago izateko:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tlf: +34-945-01 97 12 Fax: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.